

Gure enpresaren izena PONPOX moda pertsonalizatua da. Desgaitasuna duten pertsonentzako edo arropa pertsonalizatua bilatzen dutenentzako neurria egindako jantzetan espezializatutako arropa-marka bat da. Bezeroak gure web orrian sartzean, estilo anitzeko diseinu aukerak edukiko dituzte, eta behin modelo bat aukeratutakoan, haien neurriak sartuko dituzte. Haien neurriak zehatzak izateko argibideak emango zaizkie, eta gomendagarria den zerbitzu bat eskainiko zaie, haien etxera doan neurtzaile profesional baten neurketak hartu eta erabiltzekoa. Gure eskaerak bezeroen etxeetara iritsiko dira.